

# 'Gu Gira kantaldia' Tafallan izango da datorren larunbatean

KONTZERTUA  
NAFARROA OINEZEN  
EKITALDIEN BAITAN  
BILTZEN DA

Euskal kantagintzako 70. eta 80. hamarkadetako abestiak eskainiko dira

MIREN MINDEGIA

IRUÑEA. *Gu Gira kantaldiaren* jirak geldialdia egingo du Tafallan, martxoaren 26an (datorren larunbata), aurtengo Nafarroa Oinezen arduradunek, Garces de los Fayos Ikastolakoek, antolatu duten ekitaldi sortaren baitan. Kontzertua Ereta Pilotalekuan eskainiko da, arratsaldeko 20.00etan.

Sarrerak egunean bertan erosi ahal dira, 20 eurotan. Aurretik hartu nahi izanez gero, Iruñeko Oinez Dendan (Sarasate pasealekua, 20), Kutxan (Sarasate pasealekua, 6) edota DIARIO DE NOTICIASen egoitzan (Leira kalea, 13) ere erosi ahal dira, 18 eurotan.

Kantaldian, Erramun Martikorena, Txomin Artola, Urko, Gorka Knörr eta Niko Etxarten ahotsez gozatzeko aukera izango da. Izan ere, *Gu Gira Kantaldian* 70. hamarkadako kanta esanguratsuenak bildu dira, zehazkiago, "bihotzera zuzendutako abestiak", kantaldiaren aurkezpenean Elkar argitaletzeko Ángel Valdésék aipatu izan zuen bezala.

Kontzertuak aurtengo Nafarroa Oineza antolatzen duen Tafallako Garces de los Fayos ikastola laguntzeko helburua du.

Ekitaldi honetaz aparte, datorren apirilaren 2an bertso afari bat ospatuko da Gure Txokoa elkartean, gaueko 22.00etan. Afarirako sarrerak (15 euro), Tafallako AEK-ren egoitzan, Ikastolan eta Azoka tabernan lortzerik bada. Apirilaren 8an, Korrika Kulturala antzezlan eskainiko da, arratsaldeko 20.30etan, Tafallako Kultur Etxean. Bukatzeko, Nafarroa Oinez ekitaldiaren Erakusketa



Anjel Valdés, Rexu Urrutia eta Maite Hernández, kontzertuaren aurkezpen ekitaldian. ARGAZKIA: JAVIER BERGASA

Ibiltaria Donostiako Kutxa Boulevard aretoan ikusgai egongo da uztailaren 15etik, uztailaren 31a arte; eta Tafallako Kultur Etxean irailaren 30etik urriaren 16ra.

**KANTALDIAREN SORRERA** 2007an, Euskadi Irratiak 25 urte bete zituen. Ospakizunaren baitan, *Gu Gira* diskoa plazaratu zen, Erramu Martikorena, Txomin Artola, Urko, Gorka Knörr eta Niko Etxarten kantuz osaturikoa, beste batzuen artean. Kantaldia disko honen argitalpenaren ondorioa da.

Lehenengo kontzertua 2009ko apirilaren 5ean eskaini zen Donostiako Kursalean, eta orduetik Euskal Herriko hainbat tokitan ibili dira kantaldia osatzen duten artistak. Izan ere, kantaldiaren helburua euskal nortasunaren berpiztearen garaia gogora ekartzea da, orduko gizartearen kezak, sentimenduak eta bizipenak kantuen bitartez gogo-

## EKITALDIAK

### ● 'Gu Gira Kantaldia'

Lekua: Tafallako Ereta Pilotalekua. Ordua: 20.00etan. Eguna: larunbatean, martxoak 26a. Sarrerak: unean, 20 euro; aurretik, 18 euro.

Salmenta puntuak: Iruñeko Oinez Denda (Sarasate pasealekua, 20), Kutxa (Sarasate pasealekua, 6) edota Diario de Noticiasen egoitza (Leira kalea, 13).

● **Bertso afaria.** Apirilaren 2an, Gure Txokoa Elkartean (Tafalla), gaueko 22.00etan. Sarrerak Tafallako AEK-n, Ikastolan eta Azoka tabernan salgai.

● **Korrika Kulturala antzerkia.** Apirilaren 8an, Kultur Etxean (Tafalla), arratsaldeko 20.30etan.

● **Erakusketa Ibiltaria.** Donostia: Kutxa Boulevard Aretoan, uztailaren 15etik 31ra. Tafalla: Kultur Etxea, irailaren 3etik urriaren 16ra.

ra ekarriz.

Kantaldia osatzen duten abeslari gehienak Ez Dok Amairu mugimendu abangoardistaren baitan hezi ziren artista bezala. 1965 eta 1972 urte bitartean garatua, mugimendu artistiko honek, une hartan hain azpiratua zegoen euskal kultura suspertu eta berritzea zuen helburu. Arlo kulturalean aritzen bazen ere, batez ere idazle eta musikariez osatzen baitzen, eragin handia izan zuen politikan ere. Mugimendu honetan parte hartu zuten artisten artean euskal kulturako izen garrantzitsuenetarikoa aurkitzen dira, hala nola, Artze anaiak, Nestor Basterretxea, Jose Angel Irigarai, Lourdes Iriondo, Mikel Laboa, Julen Lekuona, Benito Lertxundi, Xabier Lete edota Jorge Oteiza.

Elkar argitaletzeko kantaldiaren antolatzaileen erranetan, bertako kantuak "iraganeko fruitu eta etorkizuneko hazi" dira.

## HITZALDIA > Joseba Barandiaran ekonomistak hitzaldia eskainiko du gaur

Joseba Barandiaran ekonomian adituak Kriaren Gaugin bat: nondik, nor, nora hitzaldia eskainiko du gaur, arratsaldeko 19.30etan. Hitzaldia, Kondestablen izango da, 2. solairuko hitzaldi aretoan. Ekitaldia Hitzaldiak euskaraz ekimenaren baitan biltzen da, eta Iruñeko Udalak, Nafar Ateneoarekin batera, antolatu dute. Bertan, egungo krisi ekonomikoa izando da aztergai, eta hiru ikuspegitatik azalduko da: nondik dator finantza krisia, banku baten egitura simple batetik abiatuta; non gaude ekonomia krisian, ohiko adierazle edota bestelakoen arabera; eta nora goaz, bigarren ataletik eratoritzen diren erronkak aipatuz. Joseba Barandiaran Andueza, (Legazpi) Euskal Herriko Unibertsitatean ekonomia lizentziaduna da. 1998tik finantza sektorean lanean dihardu eta euskal komunikabideetan kolaboratzaile aritzen da. 2009. urtean Argia Saria jaso zuen. >M.M.P.

## FILOLOGÍA > Publicada la obra completa de Koldo Mitxelena

Los profesores de la UPV/EHU Joseba Lakarra e Iñigo Ruiz Arzallus han recopilado en 15 tomos las *Obras completas* de Koldo Mitxelena, edición que recoge todos los escritos del filólogo vasco. El trabajo ha sido realizado gracias a la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Universidad del País Vasco, con la ayuda del Gobierno vasco. El rector de la UPV/EHU, Iñaki Goirizelaia, la consejera de Cultura, Blanca Urgell, el diputado general de Gipuzkoa y el profesor Joseba Lakarra, presentaron en la Diputación de Gipuzkoa esta publicación, en un acto en el que también estuvieron presentes familiares de Koldo Mitxelena, los exconsejeros del Gobierno vasco, como Miren Azkarate e Inaxio Oliveri y Miren Azkarate, el físico Pedro Miguel Etxenike, o la directora del Instituto Etxepare, Aitzpea Goenaga, entre otros. Las *Obras completas* constan de más de 7.000 páginas que incluyen todo lo que el autor publicó en vida y también algunos pocos textos anónimos que no dejan duda de su autoría, así como aquellos escritos publicados con posterioridad a su muerte. >E.P.

## KRITIKA > SAIKERA

# Terrorismoa antropologiaren lupa pean

## TERRORISTA NIRE BAITAN

Izenburua: Terrorista nire baitan. Jatorrizko izenburua: My Terrorist Self. Egilea: William A. Douglass. Itzultzailea: Xabier Ollarra. Argitaratze-urtea: 2010. Argitaletxea: Pamiela

## INMA ERREA

SAIKERA honen berezitasun nagusiaz, hasiera-hasieratik ohartarazten digu egileak berak: "Antropologo naizen aldetik ere oso sentibera naiz kulturen arteko komunikazioa funts-funtsean zailtzen duten kultur hertsapenen aurrean (...) nire izaera amerikarra eta (sasi) euskalduna ahots bakarrean nolabait batzeko desafio bikoitzari egin beharko diot aurre; izan ere ingelesez ari naiz

idazten, baina gero irakurle euskaldunek hartuko dute nire testuaren itzulpena".

Halaxe da: William A. Douglass (Reno, Nevada, 1939), 1967an Reno-Nevadako Unibertsitatean Euskal Ikasketen Programa sortu zuen antropologoak, ingelesez idatzi du saikera, baina, behin euskaratuta, guri, euskaldunoi, mintzatzeko.

Haatik, hori ez da liburu honen ezaugarri berezi bakarra: saikera labur honetan (guztira 50 bat orrialde baino ez du hartzen), egilea aldi berean zaila eta gaur-gaurkoa den gaia, kasik tabu bihurturikoa, jorratzen ausartu da: terrorismoaren fenomenoak, edo, hobeki esanda, terrorismoaren etiketapen, edo haren estakuruz, gorde samarrean dirauten errealitate

askotarikoak.

Douglass amerikarra da, baina, aitortzen duenez, euskal izaera ere bereganatua du, nolabait. Saiakeran bere bizitzan barna euskaldunekin bat egitera bideratu duten urratsak azaltzen dizkigu xehe-mehe.

Douglass bere euskal izaera hori eraikitzeke egindako bidean, garrantzi handia hartzen dute terrorismo etiketak bere baitan biltzen dituen errealitate bihurri eta ilunek. Horiei dagokiari, gogoeta eta datu interesgarriak eskaintzen dizkigu Douglass, hala terrorismoaren gaiak mundu mailan hartu duen funtsezko tokiaz nola euskal kasuaz, ETaren eta euskal gatazkaren inguruko kontuez.

Alde horretatik, Douglass saikera txiki honek munta are handiago hartzen du bizi dugun egungo egoera honetan. Ezin dugu ahaztu Douglass baduela eskarmen-tua euskal gatazkari irtenbidea bilatzeaz denaz bezainbatean, gutxienez bi baketze-saiotan parte hartu baitu. Haren liburuak ez digu argituko etorkizunak zer ekarriko duen, afera honi dagokionez, baina gauzak beste ikuspegi batek aztertzeke aukera ematen ahal digu. Niri neuri sentipen bitxia eragin zidan Douglass liburu ira-kurtzen ari nintzela ETaren urtarileko komunikatuaren iritsierak: hausnarketa teorikoak eta errealitateak une batez bat egiten zutela iruditu zitzaizkidan.

Douglass kontakizun eta gogoe-

tez gain, Miel A. Elustondok 2006an Argia aldizkarirako Douglassi egindako elkarrizketa jaso dute liburu honetan. Batzuetan zenbait datu errepikatzen dira, baina oro har kontrapuntu interesgarria jartzen dio elkarrizketak Douglass saikerari.

Eta, hain zuzen ere, liburu honi dagokionez, badago, ene ustez, azpimarratzeko moduko beste alderdi bat: saikera baten itzulpena izatea. Izan ere, literatur lan ugari erakusten ari dira azken urteotan euskarara, baina ekartzen diren lanen artean oso bakanak izaten dira saikerak (ahaztu gabe, betiere, Pentsamenduaren Klasikoak). Fikzioari muzin egin gabe ere, interesgarria izango litzateke honelako saikera gehiago euskaratzea.